ERKIDEGO OSORA ZABALDU NAHI DUTE ELKARTEAREN ERAGINA

# Baserriko emakumeen elkartea sortu dute Aian

**Bederatzi urteko esperientzian oinarrituta, *Hitzez* elkartea sortu dute bailarako 5 baserri emakumek.**

Pauso garrantzitsua eman dute bailarako 5 emakumek: lehen baserriko emakumeak babesteko eta indartzeko era informalagoan antolatzen zutena beste era batera antolatu eta erkidego osora zabaltzeko asmoarekin aurkeztu dute.

Arantxa Eizagirre, Arantxa Eizmendi, Elixabet Manterola, Rosa Aramendi eta Ana Mari Eizagirre dira *Hitzez* elkartearen sortzaileak, baserriko emakumearen arazoak hurbildik ezagutzen dituztenak.

Eta bostek sindikatu eta elkarte munduan izan duten esperientzia aprobetxatu dute baserrian bizi den emakumearen beharrei erantzuteko.

Orain dela 8 urte babes psikologikoa eskainiko zuen talde bat sortu zen Aian, eta lagungarria izan dela esan digu Eli Manterola elkarteko lehendakariak: *Isolamendu hitza behin eta berriro azaltzen zen. Talde horretan barruan gordetzen genituen kezkak lagun artean kanporatzeko aukera eman zitzaigun. Inor ez badugu gauzak kanporatzeko, zaila da ez gaixotzea. Lasai hitz egin ahal izateko esparru propio baten beharra ikusita, elkartea sortu eta lan eremua Euskal Autonomia Erkidego osora zabaltzea erabaki dugu. Psikologo bat dugu koordinatzaile gisa, eta guretzat onuragarria dena, besteentzat ere horrela izango dela iruditzen zaigu. Emakumeak lehen pausoa ematera ausartuko balira...*



*Hitzez* talde berria prentsaurrean aurkezteko unean kultur etxean KARKARA

**'Lasai hitz egin ahal izateko esparru propio baten beharra ikusita, sortu dugu elkartea'**

Aurten Aiako laguntza taldea martxan segitzen du eta, horrez gain, ekimen zabalagoak antolatu dituzte: hitzaldiak Bergaran, Azpeitian, Oiartzunen eta Zarautzen, eta tailerrak Zumaian eta Mutrikun.

Baserriko emakumeak animatu nahi dituzte parte hartzera eta, horretarako, 679 634808 telefonoa erabil dezakete.

## LABUR

GIZARTEA

### Haria lapurtuta

Telefonorik gabe gelditu da herria azken egunetan. Irailaren 20an azaldu zen arazoa eta, Telefonicak aztertu zuenean, Laurgain inguruan hariak moztuta aurkitu zituen. 23an eta 25ean kalte gehiago egin zuten, hari metro asko eramanez. Badirudi lapurrek, dirua ateratzeko, haritik kobrea hartu eta saldu egiten dutela.

Arazo handiak sortu dira Udalean, anbulatorioan, eskolan, Kutxan, kooperatiban, eta, zer esanik ez, etxe partikularretan, telefono, Internet eta Wifirik gabe gelditu baitira.

Ertzainen eskuetan jarri du salaketa Telefonicak.

KULTURA

### Ikastaroak

Honako klase hauek antolatu dira udazkenerako: Euskal dantza, yoga, musika, txalaparta, ingelesa eta aerobika, azken biak heldu zein haurrentzat.

KIROLAK

### Zarauztarrak Aian arraunean

Transportes Indoko lokal zaharra da Zarauzko Arraun Elkartearen egoitza berria. Alokairuan hartu dute, egin beharreko aldaketa gauzatzeko baimena jaso bitartean, eta 2008ko udaberrirako erosi eta normaltasunez erabiltzea aurreikusten dute.

Sukalde eta bainuen erreformak
XANTI MUJIKA
Igeltseritza
699 46 76 21
943 13 10 37

Automóviles
ZARAUTZ
CITROËN ZERBITZU OFIZIALA
Ibilgailu berriak eta ia berriak salgai
ZARAUTZ. Telf. 943 13 13 50

Pelukeria eta estetika mistoa
- Tinte begetalak eta koloratze naturalak
- Betileetarako tinte iraunkorra
- Azkazal eskulpituak
- Pedikura
- Depilazioa
San Nikolas, 2 Telf: 943 83 51 70